

# HEZKUNTZA PROIEKTUA

-ELEIZALDE IKASTOLA-




## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA.....</b>	<b>3</b>
<b>2. TESTUINGURUA .....</b>	<b>4</b>
2.1. Kanpo testuingurua .....	4
2.2. Barne testuingurua .....	4
<b>3. NOR GARA? .....</b>	<b>7</b>
3.1. Misioa .....	7
3.2. Bisioa.....	7
3.3. Xedeak .....	8
<b>4. NOLAKO IKASTOLA NAHI DUGU?.....</b>	<b>9</b>
4.1. Ikasleak .....	10
4.1.1. Helburuak.....	10
4.1.2. Zer egingo da helburuak lortzeko?.....	10
4.1.3. Nola egingo da helburuak lortzeko?.....	11
4.2. Langileak .....	12
4.2.1. Helburuak.....	12
4.2.2. Zer egingo da helburuak lortzeko?.....	12
4.2.3. Nola egingo da helburuak lortzeko?.....	12
4.3. Hezkuntza komunitatea .....	13
4.3.1. Helburuak.....	13
4.3.2. Zer egingo da helburuak lortzeko?.....	13
4.3.3. Nola egingo da helburuak lortzeko?.....	13
<b>5. EBALUAZIOA.....</b>	<b>14</b>

## 1. SARRERA

Esku artean duzun dokumentua Bermeoko Eleizalde Ikastolaren Hezkuntza Proiektua da. Txosten hau ez da asmatutako ezer, baizik eta ikastolak bere eguneroko lanean erabiltzen dituen beste txosten batzuetan oinarrituta dagoen dokumentua. Hezkuntza Proiektu honetan, gaur egun garena, egiten ari garena eta egiteko asmoa duguna bildu eta egituratu nahi izan dugu.

Eleizalde Ikastolako Hezkuntza Proiektua egiteko agente desberdinez osatutako **talde eragile** bat ibili da lanean.



Lehendabiziko pausua, Hezkuntza Proiektu txostena zertarako erabili nahi dugun definitzea izan da; eta lortu ditugun emaitzak honakoak:

- ✦ Hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztiok helburu eta xede komunak izateko
- ✦ Familiek beraien seme alabentzako aukeratutako ikastetxea zer nolako den jakiteko
- ✦ Garena eta izan nahi duguna era adostuan zehazteko
- ✦ Hezkuntza komunitateak nahi duen hezkuntza aukera adierazteko
- ✦ Ikastetxearen erabakiak, proiektuak, hobekuntza eta berrikuntza prozesuak egituratzeko, koherenteak izateko eta orientatzeko

## 2. TESTUINGURUA

### 2.1. Kanpo testuingurua

Eleizalde Ikastola Bermeoko Arene auzoan dago kokatuta, Bakioko errepidearen eta Udal kiroldegiaeren artean. Elkarren ondoan dauden hiru eraikin desberdinek osatzen dute: eraikin nagusia, Atxitxe Enea baserria eta 2010ean eraiki zen eraikina. Ia gela guztiak, baita aretoa, sukaldea, jantokia... eraikin nagusian daude. Baserrian lau ikasgela daude. Eraikin berrian DBH 2. ziklorako gelak daude. 17-18 ikasturtean, eraikin berrian gela egonkorra ere kokatu dugu.

Ikastolara datozen ikasle gehienak bermeotarrak dira; hala ere, Bakioko eta Mundakako ikasleak ere baditugu. 2005 urtetik aurrera, ikasle etorkinen kopurua ere handitu egin da (gehienetan ikasle etorkinak hezkuntza sailak bidaltzen dizkigu). 2012tik aurrera etorkinen portzentaia nabarmen gutxitu da. Baina badirudi 2017-2018 ikasturtean gauzak aldatzen joango direla. Ikasle hauek dira gehien mugitzen direnak: batzuk eskola publikoetara joaten dira, eta beste batzuk beste lurralde batzuetara, euren egoera ekonomikoaren arabera.

Maila sozioekonomikoari adituta, gure herria erdi mailan kokatzen da. Honen ondorioz, gure ikastetxera datorren familien gehiengoa ere egoera sozioekonomiko horretakoa da.

Eleizalde Ikastola Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko bazkide da, bertan adosten diren ildoak jarraitzen dituelarik. Era berean, ERKIDE Hezkuntza Kooperatiben Elkargoko bazkide ere bada.

### 2.2. Barne testuingurua

Eleizalde Ikastola izena erabiltzen dugun arren, gure izen fiskala LUIS DE ELEIZALDE IKASTOLA SDAD COOP DE ENSEÑANZA da. **Kooperatiba integrala** gara, hau da, bai gurasoak baita langileak ere bazkide dira.

Ikastola finantzatzeko Hezkuntza Sailaren dirulaguntza jasotzen dugu, hau da, **itunpeko ikastetxea** gara. Finantzaketa iturri hau ez denez nahikoa, ikasleko kuota bat ordaindu behar da, zerbitzuen atala ordaintzeko.

Haur Hezkuntza 0 urtetik DBH 4ra arteko hezkuntza eskaintzen dugu, baita gela egonkorreko hezkuntza ere, guztia **D ereduan**. Hiru etapa dira beraz, gure ekin esparrua: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 2017-2018 ikasturtean 776 ikasle ditugu. Barne antolakuntzari begira, etapak ziklotan banatuta daude, era honetara:

HAUR HEZKUNTZA		LEHEN HEZKUNTZA			BIGARREN HEZKUNTZA	
1. zikloa	2. zikloa	1. zikloa	2. zikloa	3. zikloa	1. zikloa	2. zikloa
HH 0	HH 3	LH 1	LH 3	LH 5	DBH 1	DBH 3
HH 1	HH 4	LH 2	LH 4	LH 6	DBH 2	DBH 4
HH 2	HH 5				GELA EGONKORRA	

Ikastolak eskaintzen dituen **zerbitzuak** honako hauek dira: jantokia, garraioa, goizetako zaintza eta eskolaz kanpoko ekintzak. Zerbitzu nagusiak azpikontratatu egiten dira eta koordinazio lanetarako arduradunak dituzte.

**Langilegoari** dagokionez, 17-18 ikasturtean, guztira zuzeneko 70 langile ditugu (11 ez dozente eta 59 dozente). Bestalde, 25 zeharkako langile ditugu (jantokiko eta sukaldeko langileak). Ikastolako langilegoa egonkorra da eta gauza bera gertatzen da ikasleekin ere: HH 2an hasten diren gehienak DBH amaitu arte bertan jarraitzen dute.

Aurrerago aipatu dugunez, ditugun **ikasle** gehienak herrikoak dira. Etorकिनak gutxigorabehera, ikasleriaren %3,32a osatzen dute eta normalean errumaniarrak, hego amerikarrak, sahararrak eta marokoarrak dira. Familia gehienak erdiko maila sozioekonomikoan kokatu arren, esanguratsua da Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jasotzen duten familia kopurua ere. 16-17 ikasturtean %27,84koa izan zen. Gaur egun, premia berezidun 23 ikasle ditugu.

Gela irakasle **ratioa** 0,70koa da (alderantziz 1,41) eta ikasle irakasle ratioa 13,63koa da.

**Instalazioei** dagokionez, hiru eraikin (eraikin nagusia, Atxitxe Enea baserria eta eraikin barria) eta hainbat jolastoki (trinketea, Kaiola Txiki, frontoia, futbol zelaia,...) ditugu.



Kooperatiba Integrala garen heinean Ikastolaren **gobernu organoak** ikasleek, gurasoek, langileek eta bazkide ez erabiltzaileek osatzen dute. Organo esanguratsuenak honako hauek dira: Batzar Nagusia, Artezkaritza Kontseilua, Pedagogia Batzordea, Ekonomia Batzordea, Zaintza Batzordea eta Mantenu Batzordea.

Eleizalde Ikastolan **gurasoen** partehartzea eta inplikazioa oso garrantzitsuak dira; kooperatiba integrala garen heinean, ikastola kudeatzen duten organo guztietan beraien presentzia dago. Hezkuntza Sailak bidalitako familiak izan ezik, gainontzeko guztiak bazkide erabiltzaileak dira. Beraz, Batzar Nagusian eta gainontzeko organoetan hartzen dute parte. Horretaz gain, partaidetza sustatzeko eta gurasoak ikastolako bizitzara hurbiltzeko asmoz, Gurasoen Sarea dugu antolatuta. Gela bakoitzak bere arduraduna izendatzen du eta arduradun horiekin ikasturtean zehar 3-4 batzar egiten dira, ikasturterako ekintzak antolatu eta hauen jarraipena egiteko. Badago bazkide ez erabiltzaile kopuru handi bat ere, gaur egun ikastolako ikasleen gurasoak ez direnak, baina bazkide izaera mantendu nahi dutenak. Batzar nagusian parte hartzeko eskubidea dute, baina gainontzeko egituretan ez dute presentziarik.

Eleizalde ikastolako **ohitura pedagogikoa**, edota irakaskintza estiloa, urteetan zehar sustraituz joan gara, nahiz eta momentuan momentuko egoerei moldatuz joan garen. 1997an egin zen Hezkuntza Proiektuan, gure irakaskuntza estiloaren ezaugarri garrantzitsuenak honako hauek zirela egiaztatu genuen:

IKASLE ETA IRAKASLEEN ARTEKO HARTUEMONA HURBILEKOA DA  
EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA OINARRIZKO BALIOTZAT JOTZEN DUGU  
ETENGABEKO EBALUAZIOA EGITEN DA  
IKASLEEN PARTAIDETZA SUSTATZEN DA  
IKASTALDEARI ERREPARATZEN ZAIO, BANAKOARI BAINO GEHIAGO  
BATERATSU JOKATZEARI GARRANTZIA HANDIA EMATEN ZAIO  
GURASOEKIN HARTUEMAN ESTUA ETA HURBILEKOA DUGU  
HOBEKUNTZARA ETA BERRIKUNTZARA ZABALIK GAUDE  
IKASLEAK ONDO PRESTATUA EGOTEA OSO GARRANTZITSUA DA GURETZAT

## 3. NOR GARA?

### 3.1. Misioa

Eleizalde Ikastolak, euskal kulturaren eta baloreetan sustraituz eta hezkuntza komunitatearen eskakizunak asetzuz, oinarritzko konpetentzia orokorrak bermatzen duen kalitatezko hezkuntza eskaintzea dugu helburu.

Urdaibaiko Biosferaren Erreserba osatzen duten baliabide natural eta kulturei eusteko eta biodibertsitatea eta garapen ekonomiko eta sozial iraunkorra sustatzeko hezi nahi ditugu ikasleak.

Kooperatiba izanik, helburuak kudeaketa parte hartzaile baten bidez adosten dira. Horiek lortze aldera, beharrezko prestakuntza diseinatu eta bermatu behar da; beti ere, kide guztien inplikazioa, giro aproposa eta elkarlana zainduz.

### 3.2. Bisioa

Euskara eta Euskal Kultura ardatz nagusi eta helburu izanik, ikastola lehiakorra izatea da gure helburua.

#### KUDEAKETA

Lehiakortasuna mantentzeko kudeaketa egokia eta eraginkorra egitea izango da gure helburua.

- a) Lerro bi modu erosoan mantentzen dituen.
- b) Kalitatezko estandarrak mantentzen dituen.
- c) Baliabide eguneratuz eta egokiez (materialak, espazioak, bitartekoak,...) hornitua dagoena.
- d) Eraikin eraberrituak eta ondo zainduak dituen.
- e) Langile talde egonkorra, motibatua eta etengabeko prestakuntza duena.
- f) Kooperatiba eredu biziki jorratzen duena. Kudeaketa gardena, sasoiari egokitua eta iraunkorra duena. Kudeaketan gurasoen eta langileen presentzia eraginkorra duena.
- g) Eskaintzen dituen hezkuntza eta zerbitzuengatik, gurasoen asetasun altuagatik eta herrian duen presentziagatik, ondo ikusia den ikastola.

#### HEZKUNTZA

Euskal kurrikulumean eta konpetentzietan oinarrituta, integrazioaren pedagogiaren bitartez eta euskara ardatz eta helburu izanik, hezkuntza eredu propioa eskaintzen duen ikastola izan nahi dugu. Eskaintza integrala, euskalduna, herritarra eta eraldatzailea lortzea dugu helburu.

- a) Ikasleak konpetentzietan hezten dituen.
- b) Ikasketa kooperatiboa ardatz duena.
- c) Metodologia eta materialetan aurrerakoia dena.
- d) Ikasleen irteera profila izango duena ardatz.
- e) Helburua, pertsonak izango dituen.
- f) Emaidza akademiko onak lortzen dituen.
- g) Baloreetan oinarritzen dena (aniztasuna, elkarbizitza, hezkidetzeta, iraunkortasuna...)



### 3.3. Xedeak

#### KOOPERATIBA

Gure sorreratik kooperatiba integrala (bazkidetza guraso eta langileena) izan gara eta horrela izaten jarraitu nahi dugu, hezkuntza eta kudeaketan ditugun ardura, betebeharrak eta eskubideekin, elkarlana eta parte hartzea

#### EUSKALDUNA

Euskara, Euskal kultura eta tradizio ondarea ezagutarazteko, maitatzeko eta bere alde ekiteko konpromisoa hartzen duena. Euskaraz bizitzera eta kultura aniztasuneko marko batean euskaldun legez identifikatzera bultzatzen duena.

#### ERALDATZAILEA

Gizartean sortzen diren erronkei aurre egiteko gaitasuna duen erakundea gara, etengabeko hobekuntza eta berrikuntza sustatzen eta ahalbidetzen duena. Hezkuntza komunitatetik gizarte justu eta iraunkorrako baten alde

#### INKLUSIBOA

Pertsona oro, edozein dela ere bere jatorria, baldintzak, ezaugarriak edo eta gaitasunak, berdintasunean barne hartzen dituen eta berorren aldeko jarrerak sustatzen dituen erakundea gara.

#### HERRIKOA

Herritik sortua, herrian sartua. Bermeoko errealitate sozial, kultural eta ekonomikoan jarrera proaktiboa izango duen erakundea .

#### HEZKIDETZAILEA


Ikasleen hezkuntzan, genero eta rol estereotipoak alde batera utzita eragingo duena. Neska-mutilen nortasun individualaren, heziketa sexualaren eta autoestimua garapenean lagunduko duena, aniztasuna onartuz eta zilegituz eta jorera eta eduki diskriminatzaileak baztertuz.



## 4. NOLAKO IKASTOLA NAHI DUGU?

Helburuak zerrendatzerakoan, ikastolan parte hartzen duten eragile guztiak kontuan izan dira. Horren ondorioz eragileak finkatu egin dira eta bakoitzari bere helburuak jarri zaizkie, helburuak lortzeko zer egingo dugun eta zelan egingo dugun adieraziz.

Nolako ikastola nahi dugun definitzeko, Ikastola eratzen dugun agente guztiak batu eta hiru taldetan banatu ditugu. Multzo bakoitzak bere kabuz entitate propioa duenez, bakoitzari bere helburuak atxikitu zaizkio.



## 4.1. Ikasleak

### 4.1.1. Helburuak

Ikasleen nortasuna garatzea  
Ikasleen euskal nortasuna garatzea  
Elkarbizitza eta hartuemanak, norberaren zein guztion ongizaterako,  
lantzea.  
Ikasleak inklusioan eta aniztasunean aktiboki hezteak

### 4.1.2. Zer egingo da helburuak lortzeko?

#### A. Oinarrizko zehar konpetentziak landuko dira.

- **Hitzezko, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.** Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.
- **Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.** Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea, eta ikasitakoa mobilizatzea eta beste testuinguru eta egoera batzuetara eramatea, norberaren ikaskuntza modu autonomoan antolatzeke.
- **Elkarbizitzarako konpetentzia.** Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasunez parte hartzea, eta norberari aitortutako eskubideak eta betebeharrak besteri aitortzea, norberaren zein guztion onurarako.
- **Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.** Ekimena izatea eta ekite-prozesua erabakitasunez eta eraginkortasunez kudeatzea testuinguru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihurtzeko.
- **Izaten ikasteko konpetentzia.** Bizitzan zehar agertzen diren sentimendu, pentsamendu eta ekintza pertsonalez gogoeta egitea eta haien sendotzea edo egokitzea, haien gaineko balorazioaren arabera, bere burua etengabe hobetuz pertsona osorik errealizatzeke.

#### B. Euskara, Euskal kultura eta tradizio ondarea ezagutarazteko, maitatzeko eta bere alde ekiteko ekintzak garatuko dira.

#### C. Disziplina barruko oinarrizko konpetentziak garatuko dira.

Disziplina barruko oinarrizko konpetentziak dira, hain zuzen, bizitzako maila pertsonalean, sozialean, akademikoan eta laboralean arazoak eraginkortasunez konpontzeko behar direnak. (Hizkuntza eta literatura-komunikaziorako konpetentzia, matematikako konpetentzia, zientziarako konpetentzia, teknologiarako konpetentzia, gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia, arterako konpetentzia, konpetentzia motorra).

**D. Ikasketa kooperatiboa oinarri izango da eguneroko jardueretan.**

Ikasteko elkarlanean aritu eta elkarlanean aritzen ikasiko dute ikasleek

**E. Hezkidetzaren sustatzea da.**

Hezkuntza ikuspegi honen helburua genero-desberdintasunak etengabe desagertzea baita, eta ez eskolako egitura formalean bakarrik, baita hezkuntzaren ideologian eta jardunetan ere. Gizonezkoen eta emakumezkoen ohituren alde positiboak berreskuratu nahi dira, eta era dikotomikoan genero bakar bati lotuta ez dauden jokabide-erreferente bihurtu, neska eta mutilen giza-garapena bultzatzeko, eta identitate pertsonala duten subjektuak direla onartzeko, estereotipoak alde batera utzita.

**F. Kulturartekotasuna errespetatu eta ezagutuko dugu.**

Herrian bizi den pertsona orok, edonon jaioa izanik, eskubide berberak izan ditzan egiten da lan kulturartekotasunaren arloan.

**G. Inguruarekiko harreman jasangarria suspertu eta sustatuko da.**

**H. Gatazkak gainditzeko estrategietan trebatuko ditugu ikasleak.**

**I. Talde heterogeneoak sortuko dira ikastolan maila txikienetik.**

**J. Trastorno desberdinekiko sentsibilizazioa landuko da ikasleekin.**

**J. Ikasle bereziek, premiez salbu, irakasle eta langile guztiengandik trataera berdina jasoko dute.**

**K. Arrisku egoeran (harremanetan zein arlo akademikoan) egon daitezkeen ikasleak ezagutzeko detekzio edota prebentzio lana egingo da.**

**L. Emozioak kudeatzen hezikiko ditugu ikasleak.** Segundu oro emozionatzen gara, eta honen garrantziaz jabetuz, emozio hauek identifikatzen eta kudeatzen jakin behar dute gure ikasleek.

**4.1.3. Nola egingo da helburuak lortzeko?**

- **Metodologia aktiboak, eguneratuak eta esanguratsuak erabiliko dira.** Geuk sortutakok zein EHItik edo eta beste erakunde batetik egokiak ikusten direnak.
- **Ikasketa kooperatiboa era aktibo eta esanguratsuan bultzatzen dituzten proiektuak erabiliko dira.** (UVIC metodologia)
- **HIZPRO.** Plan estrategikoak aipatzen dituen ildoak inplementatuko dira.
- **Indartze neurriak ezarriko dira.** Bai hezkuntza sailak eskaintakoak erabiliz (HBSP, aniztasun taldea, hezkuntza errefortzuak..) edo guk geuk ikusten ditugun neurriak aplikatuz.

- **Jazarpena ekiditeko programak erabili eta aplikatuko dira.** (KiVa)
- **EA21 egitasmoa aurrera eramango dugu.** Akreditazioa 4. urtean berrituko dugu.
- **Hezkidetzaren garatzeko programa ezberdinetan arituko gara.** Berritzegune (Hezkidetzaren proiektua), Foru Aldundia (Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektua), Emakunde (Emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio eta prebentziorako programa).
- **Elkarrekiko errespetua eta kultura arteko ulermena** helburu duten ekimenak bultzatuz eta babestuz.
- **Emozioen kudeaketa curriculumean txertatuko dugu.**

## 4.2. Langileak

### 4.2.1. Helburuak

Langileen arteko koordinazio eraginkorra lortzea  
Ikastolarekiko langilego kohesionatua eta atxekipenduna izatea  
Euskara eta euskal kulturaren transmisioan erreferente izatea  
Etengabeko prestakuntza bultzatzea

### 4.2.2. Zer egingo da helburuak lortzeko?

- A. Organigrama funtzionala KEI ereduaren arabera osotuko da.
- B. Langileen denbora kudeaketako plan eraginkorra egingo da.
- C. Prestakuntza plana urtero diseinatuko da.
- D. Organo erabakiorretan langileen partehartzea bultzatuko da.
- E. Hezkuntza Premia Berezidun ikasleeen eguneroko bizitzan parte hartzen dutenek eurak tratatzeko eta heitzeko beharrezko prestakuntza jasoko dute, eta koordinazio uneak izango dituzte.
- F. Hezkuntza Premia berezidun ikasleekin, Eusko Jaurlaritzak markatutako jarraipideak gauzatuko dira.
- G. Egoera ez formaletan (jolas orduak) ikasleentzako adostutako helburuak lortze aldera bideratutako prestakuntza planifikatuko da.

### 4.2.3. Nola egingo da helburuak lortzeko?

- Euskarri informatikoak langile guztien eskura jarritz.
- Ikastolako eragile guztiak parte hartuz, komunikazio plan eraginkorra egingo da.
- Bakarkako egoerak bereziki aztertuz, lan-bazkideak izatera bultzatuz.
- Memoriak kontuan izanik, urtero, prestakuntza plana diseinatu eta aurrera eramanez.
- HIZPRO. Plan estrategikoak aipatzen dituen ildoak inplementatuko dira.

### 4.3. Hezkuntza komunitatea

#### 4.3.1. Helburuak

Erantzukizunaren, inplikazioaren eta parte hartzearen kultura bultzatzea  
Tolerantziatzeko eta errespetuzko giroa sortzea hezkuntza komunitateko kide guztien artean  
Euskara eta euskal kultura bultzatzen duen komunitatea izatea

#### 4.3.2. Zer egingo da helburuak lortzeko?

- A. Ikastolako eragile guztiak parte hartuz, komunikazio plan eraginkorra egingo da.
- B. Organo erabakiorretan hezkuntza komunitateko kideen partehartzea bultzatuko da, kooperatiba integralaren izaera bermatuko delarik.
- C. Kooperatibak ezartzen dituen prozedurak erabiliko dira gatazka egoerak daudenean.
- D. Hezkuntza komunitateko edozein kidek zalantzak, iradokizunak... aurkezteko eta erantzuna jasotzeko aukera izango du, komunikazio planak jartzen dituen prozedurak errespetatuz.
- E. Komunikazio hizkuntza bezala euskara erabiliko da.
- F. Gatazkek elkarrizketaren eta parte hartze arduratsuaren bidez konponduko dira.
- G. Komunitate osoa inplikatzeko duten euskara eta euskal kultura sustatzeko kanpainak antolatuko dira.
- H. Hezkuntza komunitateak kooperatiba legeak markatzen duen adostutako elkarbizitza araudiak ezagutzera emango ditu.
- I. Udal mailan antolatzen diren euskara sustatzeko ekintzetan partehartzea bultzatuko da.

#### 4.3.3. Nola egingo da helburuak lortzeko?

- Informazioa zabaltzeko eta jasotzeko ikasle ohien eta gurasoen sarea erabiliko da.
- Alexia garatuko da. Informazioa une oro eskuragarri izateko.
- Batzar orokorra urtero egingo da. Bertan Batzar honi dagokion informazioa zabalduko da.
- Bitartekaritzarako irudia sortuko da.
- Euskal kulturarekin zerikusia duten ekintzetan parte hartuko da.
- Hizkuntza Proiektuko plan estrategikoa berridatzi eta gauzatuko da.

## 5. EBALUAZIOA

Eleizalde Ikastolaren Hezkuntza proiektua ikastolako izaera eta ibilbidea ezartzen duen markoa da. Bertan agertzen diren printzipioak eta helburuak Plan estrategikoan eta ondorioz Zuzendaritza planean islatuko dira. Urtero, Urteko Plana egiten denean Hezkuntza plana izango da irizpidea. Ikasturtea amaitzerakoan, ikastolako antolakuntza talde guztiak memoria egingo dute eta, era berean betetze maila ikusiko da, hurrengo urteko plana diseinatzeko.

KEI ereduak zehazten duen bezala, Hezkuntza Proiektuaren berridazketa orokorra 5 urterik behin egingo da.

